

Ipar Euskal Herria orratz



GOTZON BARANDIARAN ARTEAGA
IDAZLEA

Aspaldian ikusi gabeko lagunarekin berriketan aritu nintzen lehengo batean. Sortzaile eta kulturzalea berau, martxoaren 15ean eta 22an Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan deituta dituzten Herriko Etxeak eta ondorioz Euskal Hirigune Elkargoa osatzeko bozei buruz irakurritakoek lozorroan zuen azkura berreragin diotela aitortu zidan. Bere bizkaitarzentristotik ari zela bazekiela, agian aitakeriatzat hartuko niola, baina esan beharra zidala, zenbateraino garen Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoatik euskarari eta euskal kulturgintzari mendeetan egin dizkioten ekarpenen zordun. Bernat Etxeparerena da inprimaturiko gure lehen liburua, Agosti Xahok formulatu zuen sendoen gurea zazpi lurraldek osatutako herria dela, Eusko Gogoia aldizkariak, zeinari esker Francoren diktadurak ez zuen lortu euskararen eta euskal kulturgintzaren inguruko dinamika oro desagerraraztea, Miarritzen hartu zuen aterpe bere bigarren labealdian, Mixel Labeguerie aipatzen dugu beti *Ez dok*

Luhuson prestatutako antzezlan batek Euskal Herri osoko milaka herritar inarrosteko gaitasuna baldin badu, Gasteizen ondutako batek izan beharko luke donapaleutarrak aztorarazteko aukera, ez?

amairu eta euskal kantagintza berriaren aitapontekotzat, Niko Etxart eta *Erro-bi* rocka euskaraz kantatzen lehenak, Itxaro Borda bestelako genero batzuk literaturara ekartzen aitzindaria, Madidi Oihenart eta Amaren Alabak desgertzeaz zen kantagintza baten sugarra, EHZ Festibala, Antton Lukuk gogoetatu eta Luhuson epizentroa duen euskal antzerkigintzaren loraldi berria, maskarak, libertimenduak, pastoralak... Zerrenda asko luzatu zitzaigun. Sortzaile gisa zein antolatzaile legez, euskal kul-

turgintzari tamaina horretako ekarpena egin eta dagoiten hiru lurraldeak ohiko zirkuitutik kanpo uzten ditugun irudipena duela gaitzetsi zuen lagunak, Nafarroako erdialdea eta hegoaldea, Arabako lautada eta Errioxa edota Enkarterriak, Meatzaldea eta beste anitz kanpo uzten ditugun ber maneran. Zein da, ba, izan, euskal kulturgintzaren zirkuitua? Non aurkeztu ditu bere lanak euskal sortzaile batek? "Elkargoaren eskumena direlarik, besteak beste, kultura eta hizkuntza politika, Luhuson prestatutako antzezlan batek Euskal Herri osoko milaka herritar inarrosteko gaitasuna baldin badu, Gasteizen ondutako batek izan beharko luke donapaleutarrak aztorarazteko aukera, ez?", bota zidan ondoren lagunak. Elkargoaren, Nafarroako Gobernuaren zein EAEko Jaurlaritzaren kultura eta hizkuntza politika plan estrategikoak proposatu, eztabaidatu, adostu eta gauzatzerakoan ezinbestean aintzat hartzeko gogoeta iruditu zitzaidan, martxo eta apirilko hauteskundeotan aurkeztuko direnei ulertarazteko modukoa. ●



Betelu[®]
Euskal Herriko Ura
Ur Mineral Naturala

50 urte ura botilaratzen

Beteluren ur minerala inguru natural batean sortzen da, Aralar mendilerroaren oinean. Kalitate handikoa eta garbia izanik, tratamendurik gabe ontziratzen da bere propietateak mantentzeko, diuretikoak baita, digestio onekoa eta lasaigarria.

Ur honek dituen osagai eta propietateak bere horretan mantentzen dira, eta bereak dituen mineralai esker edan erraza da, zapore berezi eta atseginekoa.



Donostia-Iruñea errepidea · 81890 Betelu (Nafarroa)

Tel.: 948 513 157 · www.betelu.com